

BIZKAIA SORTZAILEA 2025

ESKABIDEAREKIN BATERA AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

Eskabidea Internet bidez aurkeztuko da “Ekonomia Sustatzeko bulego birtuala” atalean (<http://www.bizkaia.eus/Sustapena-BulegoBirtuala>)

Ondoko dokumentazioa aurkeztu behar dira eskabidearekin batera:

- Proiektuari buruzko memoria.
- Hartzekodunaren fitxa, Bizkaiko Foru Aldundian banku-helbideratzeari buruzko datuak ez badaude edo bertan dauden datuak aldatu nahi badira.
- Dirulaguntzen onuradunek baldintzak betetzen dituztela justifikatzen duen erantzukizunpeko adierazpena.

Proiektuaren memoria, hartzekodunaren fitxa eta dirulaguntzen onuradunek baldintzak betetzen dituztela justifikatzen duen erantzukizunpeko adierazpena Ekonomia Sustatzeko Sailaren webgunean dauden ereduaren arabera aurkeztu behar dira (www.bizkaia.eus / Enpresak eta Nazioartekotzea / Ekintzailtza / Ekintzailtza / Berrikuntza eta sormena / Bizkaia Sortzailea).

- Berankortasunaren aurkako 3/2004 Legean aurreikusitako ordainketa-epeak betetzen direla egiaztatzen duen dokumentazioa, hala badagokio.
- Sexu-jazarpenari eta sexuan oinarritutako jazarpenari aurre egiteko protokoloa, hala badagokio.
- Berdintasun-plana dagokion erregistro ofizialen inskribatu ez izana justifikatzen duen dokumentazioa, hala badagokio.
- Proiektuaren sustatzaile-taldearen lanbide-historia edo enpresaren ibilbidea, hala badagokio.
- Enpresa sortzaile berrien kasuan, EJZko altaren lehenengo data 2023ko urtarrilaren 1a edo 1az gerokoa dutenak, entitate eskatzailearen eraketari buruzko eskritura, behar bezala erregistratuta, eta, hala badagokio, kapital-gehikuntzari buruzko eskriturak.
- Irabazi-asmorik gabeko sektore-erakundearen kasuan, entitate eskatzailearen estatutuak, behar bezala erregistratuta.
- Enpresen kasuan, 2024. urteko fakturazio-zerrenda, bezeroak, egindako lanaren deskripzioa eta fakturatutako zenbatekoa jasotzen dituenak. Fakturazio zerrenda Ekonomia Sustatzeko Sailaren webgunean dauden ereduaren arabera aurkeztu behar da (www.bizkaia.eus / Enpresak eta Nazioartekotzea / Ekintzailtza / Ekintzailtza / Berrikuntza eta sormena / Bizkaia Sortzailea).

Irabazi-asmorik gabeko sektore-erakundearen kasuan, 2024ko ekitaldian egindako jarduerak, haien deskribapena eta kostua adierazita.



- Irabazi-asmorik gabeko sektore-elkarteen kasuan, elkartekide diren pertsona edota entitateen zerrenda, eta haietako bakoitzerako adierazi behar da EJZko zer epigrafetan dauden alta emanda eskabidea aurkezten den egunean.
- Enpresen kasuan, enpleguaren betekizuna egiazteatzeko:
 - Enpresak ordaindutako azken autonomoen ziurtagiria edo azken nomina, langile autonomoen kasuan bakarrik.
 - Inoren konturako langileen kasuan, betekizun hori automatikoki egiaztatuko du Ekonomia Sustatzeko Sailak.
- Proiekturako jarritako langileen barruko gastuak eskatu badira:
 - Gizarte Segurantzaren Araubide Orokorrean dauden pertsonen kasuan, azken bi langileen zerrenda izenduna (LZI).
 - Langile autonomoentzat, eskuragarri dauden kotizazio-oinarrien azken bi txostenak (IBC)..
- Errentamendu gastuen kasuan, errentamendu-kontratua, behar bezala beteta.
- Merkaturatze gastuei eta marketin-planari dagozkien aurrekontuak.
- Negozioa garatu behar duen pertsonaren kontratazioen kasuan:
 - Lan-kontratua.
 - Langileen zerrenda izenduna (LZI) edo alta Gizarte Segurantzaren araubide orokorrean, zerrendarik ezean.
 - Negozioa garatzeko pertsonaren lan-bizitza.
 - Curriculum vitae
 - Enpresa berrian izango dituen eginkizunen deskribapen laburra.